

## Donostia WeekINN aurten kaleratuko da



**Donostiako Berrikuntzaren Asteak, Ekonomia Sustapenerako zinegotzigoak Donostia Sustapenaren bidez antolatuta, aurten, Gipuzkoako Aldundiko laguntza jasoko du eta urriaren 26tik 31ra arte garatuko da. WeekINNek aurtengo ediziorako kaleko jardueren zirkuitu bat programatu du. Horiek hiriko puntu desberdinetan antolatuko dira, hiritarrei zuzenduta, asteburuko programazio berezi baten barruan. Helburua da donostiarrei hirian, enpresa eta proiektu berritzaileen, ikerketa eta teknologia zentroyen eta esparru desberdinetako beste entitateen bidez, garatzen den berrikuntza osoa gerturatzea. WeekINN asteak beste bi jarduera zutabe mantendu ditu, bat enpresei eta profesionaleri zuzenduta, eta beste bat, berriz, ikastetxeei zuzenduta. Berrikuntzaren Astearen zehar, Kursoalen Donostia Innovation Challenge antolatuko da, non hiriko 11 ikastetxetako 400 ikasle baino gehiago bilduko diren, eta DonostiaINN sariak hiriko enpresa berritzaileei entregatuko zaizkie.**

**Ernesto Gasco Ekonomia Sustapeneko zinegotziaren esanetan, “WeekINN astea hirian finkatutako ekitaldia da, aurtengo bere seigarren edizioarekin, eta nabarmendu du berriz Donostia, aspalditik, berrikuntzaren inguru egiten ari den apustua. Donostiarrei gerturatu nahi diegu gure hirian, enpresa eta proiektu berritzaileen, gure ikerketa eta teknologia zentroyen eta esparru desberdinetako entitateen bidez, garatzen den berrikuntza osoa. Eta hiriko ikastetxeekin lan egiten dihardugu, gure gazteak berrikuntzarekin lotutako gaitasunetan trebatzeko helburuarekin”**

**Imanol Lasa Sustapen Ekonomikoko diputatuak adierazi zuenez, “Donostiaren postal ederretik haratago, berrikuntzarekin eta ezagutzarekin sakonki lotutako hiru bat dago.**



Teknologia, ikerketa eta formakuntza zentroek, eta ekintzaile sare sendo batek osatzen duten ekosistema aberatsa duena". 'Making Gipuzkoa' filosofian kokatu zuen Aldundiak WeekInn-i ematen dion babesa. "Izateko eta lan egiteko modu hori dago gure lehiakortasunaren oinarri-oinarrian. Pertsonak dira balio erantsia eta ezagutza sortzen dutenak, eta egiturak eta erakundeak hobetzen dituztenak, etengabeko eraldaketa eskatzen duen testuinguru global batean. Haien gaitasunak eta berrikuntzarako joera indartuz, gure ekonomia ehuna eta kalitatezko enplegua indartzen ditugu".

Donostia Sustapenak sustatutako WeekINNeK aurten, 35 jarduera baino gehiago eskainiko dizkie, hiri osotik zehar banatuta, doako hitzaildiekin eta saioekin, enpresei, ikerketa zentroi, ikastetxei zein sektore desberdinetako eragileei. Horiek guztiek Donostiako ekosistema berritzailea nabarmendu dute, hiriko aldaketa, hazkuntza eta kohesio eragile gisa.

Horrez gain, Berrikuntzaren Astean, **DonostialNN** enpresa berrikuntzarako sariak entregatuko dira berriz. Aurtengoa laugarren edizioa izango da eta haien bidez hiriko enpresek arlo honetan egiten duten esfortzua saritu nahi da. Bi sari kategoria bereiziko dira: finkatutako enpresa eta enpresa gaztea.

Astebetetz, Donostia Berrikuntzaren hiriburu bilakatuko da berriz, 35 jarduerekin baino gehiagorekin, besteak beste:

**Larrunbata, urriak 26 eta igandea, urriak 27:** hiritarrei zuzenduriko doako jarduerak, esaterako: robotika tailer bat, garapen jasangarriari buruzko gymcana bat hiriko erdialdeko kaleetatik zehar, edo 'Ralph rompe internet' pelikularen proiektzioa Aquariumen.

**Astehena, urriak 28:** Kursoalen Donostia Innovation Challenge antolatuko da, non hiriko hamaika ikastetxeko 400 ikasle bilduko diren, hiria, adimen artifiziala, 3D inpresioa, robotika, gauzen interneta, errealitate birtual eta areagotuaren bidez, hobetzeko gaiaren inguru.

**Asteartea, urriak 29:** Plater kanpoko berrikuntza gastronomikoa. Jardunaldi hori Mimo gunean garatuko da, non hainbat elementu mahai ginean jarriko diren, besteak beste: komunikazioa eta storytelling, guneak eta giroak sortzea, edo taldeetako buruzagitza eta motibazioa.

**Asteazkena, urriak 30:** DonostialNN Sarien entrega bi kategorietan: enpresa gazte eta berritzailearentzat, eta finkatutako enpresa berritzailearentzat. Ekitaldia María Cristina Hotelean izango da eta hiriko erreferentzia den enpresa bati ere sari bat entregatuko zaio.

**Osteguna, urriak 31:** Tabakaleran, Euskal Filmotekaren eta Donostia International Physics Center zentroaren laguntzarekin, 'Apollo 11' pelikula eskainiko da: gizakia estreinako ilargira eramanez misio espazialaren inguru inoiz ikusi ez diren irudiak biltzen dituen dokumentala.

Horiez gain, izaera ludikoa eta hezigarria uztartzen dituzten beste jarduerak ere nabarmentzen dira, esate baterako: Emakumeari eta zientziari buruzko hitzaldiak eskainiko dituen Zientzia and Fun zikloa, Futbola eta zientzia edo Nanoteknologia eta zahartzea Baga Bogan, edo Fotzientzia erakusketak Argazkilari Elkartearen, Mujertek Space Arcco Amara gunean, edo Nanokomik San Martín Merkatuan.

WeekINN programa hemen kontsultatu daiteke: <http://www.donostialinn.es/es/donostia-weekinn>



Hiri berritzailea  
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

Aurten Gipuzkoako Aldundia Donostia WeekINN 2019 astearen laguntzailea izango da, eta baita honako hauek ere:

Alerion	Kursaal
Antigua Luberri	La Donostiarra
Aquarium de San	Nanogune
Sebastián	Nuavis_
Arcco Amara	PantallasAmigas
Asociación Hosteleria	Pint of Science
Gipuzkoa	San Martin merkatua
Axular Lizeoa	Semana de cine
Baga Biga Faktoria	fantástico y de Terror
Big Van Ciencia	Skootik
Bidonostia	Sociedad Fotográfica de
Cátedra de Divulgación	Gipuzkoa
Científica de la EHU/UPV	SPIFF CORPS
Cebanc	St. Patricks English
Ceinpro	School
CEIT	Taba
Cibersurgery	Tecnalia
Ciberes	Tecnun
CIC Biomagune	Tknika
Colegio Oficial de	Universidad de Deusto
Ingenieros Industriales de	Universidad de Deusto
Gipuzkoa	Forotech
CSIC	Vicomtech
DIPC	Zubiri Manteo
DOMOTEK	
Easo Politeknikoa	
EHU-UPV	
Ekintza	
Ekomodo	
Eroski	
Euskal Hack	
Facultad de Arquitectura	
EHU	
FECYT	
Federación Vasca de	
Junior Empresas	
Filmoteca Vasca	
Fundación Jesús Serra	
Hirikids	
Hotel Londres	
Hotel Maria Cristina	
Ibermatica_	
IES Altza Institutua	
IKOR	
Immersia	
Kirol DNA	



*Hiri berri zailea*  
*Ciudad innovadora*

[fomentosansebastian.eus](http://fomentosansebastian.eus)